

JULEN LEKUONA ETA MIKEL LEIZA: PORTUKO FESTEN ANTOLATZAILEAK

“Portuko San Juan Txikietan asto lasterketak eta petardoen soinuak izaten dute fama”

■ Bihar eguerdiko 12:00etan emango zaie hasiera Portuko San Juan Txikiei suziriak botata ■ Biharkoa umeen eguna izaten denez ekintza gehienak umeentzat izango dira ■ Festak igande gauean bukatuko dira zezen suzkoia, koloretako suziri eta azken trakaren zalapartarekin.

UDARA bukaera hurbiltzen ari denean, urtero bezala Portuko San Juan Txikiak hasten dira. Festak aste bukaera honetan izango dira eta bihar emango zaie hasiera eguerdiko 12:00etan botako duten suziriarekin. Festak aurrenoko eguna, ostirala, umeentzako eguna izaten da eta horregatik programako ekintza gehienak umeetan pentsatuta antolatzen dituzte. Baina aste-bukaera osoa hartzen duten festa hauean gauza ezberdinak ikusten dira, Hernanin beste inon ikusi ezin daitezkeenak gainera: asto lasterketa eta lorontzi lehiaketa adibidez.

Bihar umeen eguna

Portuko festei hasiera eguerdiko 12:00etan emango zaie suziria botata, baina goizetik hasita haurrek ez dute aspertzeko denborarik izango. Goizeko 10:00etan marrazki eta pintura lehiaketa izango da eta 12:00etan marrazki horien erakusketa egingo da. Ostiralean Haurren Parkinga doain izango da eta irekita egongo da goizeko 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara. Haurren Parkingean puzgarriak, ohe elastikoak eta parke txikia egongo dira bertan jolastu nahi duenarentzat. Arratsaldeko 17:00etan herri kirolak izango dira umeentzako eta 18:30etan haur jokoak.

Hala ere bestelakoik izango da bihar Portun. Arratsaldeko 18:00etan lorontzi lehiaketa izango da. Mikel Leizak dioenez “Urte osoan balkoietan



Julen Lekuona eta Mikel Leiza Portuko festako antolatzaileetako bi, tartean auzoko Roxarito dutela.

jarrita eta zaintzen egon diren llorek erakusten dituzte parte hartzaleek. Hala ere bezperan erositakoren bat ere egoten da. Gainera azkeneko urteetan orain arte ikusi ez ditugun landareak erakutsi izan dituzte: bonsaiak eta marihuana landareak adibidez”. Arratsaldeko 19:00etan Tute Txapelketa jokatuko da *Pedro Mari* tabernan eta 20:30etan sardina jatea egingo dute. “40 kilo sardina ekartzen ditugu eta dena jaten da” dio Julen Lekuonak. Gauean 23:00etatik aurrera berbena izango da *Laiotz* taldearekin.

52 asto lasterketa, 52 festa
Asto lasterketa izaten da Portuko festetako ikuskizun haundieta eta larunbatean arratsaldeko 18:00etan egingo da. Aurtzen 8 jinetetako aterako dira, eta urtero bezala, lasterketak saltsa pixka bat izan dezan mozorro-tuta aterako dira. Aurtengoan 52garren asto lasterketa izango da, “52 asto lasterketa dira orain arte kontatutakoak eta horrek esan nahi du 52 urtetan egin direla festak Portun. Horrek badu meritu pixka bat” dio Julen Lekuonak. Hala ere Portun lehenagotik ere festak egiten zirela kontatzen du Mikel Leizak: “kontatu ez diren festak ere egin dira Portun. Auzora sartzeko dagoen baserri handi horretan egiten ziren. Txekor bat hil eta bazkari bat egiten zuten eta ondoren trikitixa jotzen zuten”.

Giroari begiratuta antolatzaileek diote giro ona egoten dela eta jende asko joaten dela Portuko San Juan Txikietara “San Juanak eta gero Ereñotzukoak eta Portukoak izaten dira festa arrakastatsuenak Hernanin” diote antolatzaileek. Portuko festetan jende gehien asto lasterketarekin biltzen da baina ostiralean ere jende asko joaten omen da, umeentzako atrakzioak doain izaten dira- eta. Igandean ere egun polita dela diote antolatzaileek euskal festa moduko bat delako egun osoa: sagardo probaketa, Hernaniko Bertso eskolako bertsolariak, Ttarlakoekin dantzaldia eta herri kirolak izango dira igande honetan.

Antolatzaileek festetara joaten direnei esan nahi diete ondo pasatzeko eta auzoa ahal den neurrian zaintzeko. □

EGITARAU

BIHAR, OSTIRALA 29 PORTUKO JAIETAN

- 10:00 Marrazki eta Pintura Lehiaketa.
- 11:00 Eguerdiko 13:00ak arte Haurren Parkinga: puzgarriak, ohe elastikoak eta parke txikia.
- 12:00 Jain hasiera emango zaie suziria botata. Buruhandi eta txistulariak aterako dira auzoko bazter guztiek alaitzezko.
- 13:00 Auzoko gazteek egindako marrazkien lehiaketa.
- 16:00 Arratsaldeko 19:00ak arte Haurren Parkinga.
- 17:00 Herri Kirolak umeentzako.
- 18:00 Lorontzi Lehiaketa.
- 18:30 Haur jokoak.
- 19:00 Tute Txapelketa ‘Pedro Mari’ Tabernan.
- 20:30 XIV. Sardina Jatea.
- 23:00 Dantzaldia ‘Laiotz’ taldearekin.



musika eskola
DOINU-ZALE
KARABEL AUZOA, 4 • behea ezkerrean
943 33 12 33 – 20120 HERNANI
MATRIKULAZIOA ZABALIK:
IRAILAREN 8tik 26ra (arratsaldetan)

Musikaren lenguia
Pianoa
Akordeoia
Pandereta
Bateria modernoa

Tronpeta
Triki-tixa
Kitarra
Abesbatza
Armonia

Helduentzako ikasketa bereziak - Talde txikiak - Musika lenguia 4 urtetik

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Eguneko menuak
Asteburuan afariak
Florida 54
943 33 03 97

ZINGI - ZANGA
Eguneroko menuak.
Asteburuetan afariak.



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA

ERREMONTZE JAIALDIA:

1. partidua: Uterga - Etxeberria II / Zalakain - Urrutia
2. partidua: Altuna II - Aizpuru / Elizalde - Lizaso
3. partidua: Altuna I - Iriarte / Bitoria - Etxabe
4. partidua: Iribarren-Urretabizkaia II / Zeberio I - Aizpurua II



Paradorea orain dela urte batzuk erre zen eta ordu ezkero horrela dago.

San Antonio Paradorerako idea lehiaketa deitza aztertzen ari da Udalak

■ Amonarraiz: "Paradorea leku egokia da ostalaritzari lotutako zerbitzuak edo zerbitzu asistentzialak jartzeko, edo Hernanik eskaintzen dituen zerbitzuak osatzeko".

UDALA aztertzen ari da San Antonio Paradore zaharrari aterabidea emateko idea lehiaketa egitea. Andoni Amonarraiz zinegotzi jeltzaleak adierazi du gaur egunean Paradorea oso egoera txarrean dagoela eta arriskutsua ere izan litekeela inguruan dabilen jendearentzat.

Paradorea dagoen bezala egonda, proiektu berriei edifizioa bota eta berria egitea proposatu beharko dute, baina, beti ere kalifikazio urbanistiko errespetatuta.

Paradorea dagoen tokian joango den proiektuari buruz Andoni Amonarraizek aurreratu du idea lehiaketak finkatu

beharko duela hor zer joango den, baina, zinegotzi jeltzaleak uste du leku hori oso egokia dela zenbait aktibatarako: ostalaritzarekin lotutako zerbitzuentzako, zerbitzu asistentzialak jartzeko, eta baita gaur egunean Hernanik eskaintzen dituen zerbitzuak osatzeko ere. □

FUTBOLA - LABAIEN TORNEOKO FINALA



Hernanik eta Realeko jokalari gazteak. Labaien Torneoko Finala jokatu zutenak.

Realarentzat jubeniletako Labaien Torneoak, Hernaniri finala 1-2 irabazita

■ Zubipe bete xamartu egin zen Torneoak ikustera joan zirenekin ■ Hernanik eta Realak partidu ederra jokatu zuten ■ Hirugarren Añorga izan zen eta laugarren Lengokoak.

REALAK irabazi du jubeniletako Labaien Torneoak. Atzo jokatu zen finala Zubipen, eta Realak 1-2 irabazi zion Hernaniri. Partidu ederra jokatu zuten bi taldeek eta bukaeran txalo zaparrada haundia eskaini zien inguratutako jendeak. Hernaniren gola Lasak sartu

zuen. Hirugarren eta laugarren postua Añorgak irabazi zion Lengokoak taldeari, penaltitan. Jokalaririk onenaren saria Realeko Iker Rodellar gazteak eraman zuen. Sari berezi hori Juancho Labaien zenaren familiakoek ematen dute urtero. □



Juantxo Labaien plaka Zubipen dago. Labaien istripuan hil zen 1971n. Hernanin jokatu zuen eta Realean debutatzekoa zen.

Patxi Sagarnak diskoa atera du Portuko Festetarako

■ Portuko tabernetan eta txosnan egongo da salgai.

PATXI Sagarnak Charly j club izenarekin diskon bat ateratzen da Portuko Festetarako. Diskoa salgai egongo da leku hauetan: Shangay taberna, Pedro Mari taberna eta txosnan. Diskoan *trance* estiloko musika aurkituko dugu eta egileak instru-

mentu ezberdinak erabili ditu: teklatua, sampleak, sintetizadoreak eta gitarrak.

Patxi Sagarna orain arte rock musikaren inguruan ibili da baina oraingo diskon honetan beste estilo batean murgildu nahi izan du. □

HITZ BITAN



Iaz 156 lagun izan ziren Txantxangorriko Sagardo Txapelketan.

✓ TXANTXANGORRI ELKARTEA

Sagardo Txapelketa irailaren 18an, eta izena ematea irailaren 1ean irekiko da bazeztideentzat. Txantxangorri elkarteko XX Sagardo Txapelketa irailaren 18an egongo dute eta 15 sagardotegi izango dira lehian. Bazkaritara urtero jende asko biltzen da eta berak erabakitzentzak dute Txapelketa sagardo onenak zein diren. Bazkarira joateko izena ematea irailaren 1ean zabalduko da Txantxangorriko sozioentzako eta irailaren 5ean gainerakoentzat. Apuntatzeko garaian ordaindu beharko da: 22 euro.

✓ JUBILATU ETXEA

Friasko bidaia joateko sorteo astelehenean. Jubilatu etxeak bidaia antolatu du Friasera (Burgos) joateko. Bidaia irailaren 9an egongo dute eta bidaia joan nahi dutenek zozketan sartu behar dute. Zozketa astelehenean egongo da arratsaldeko 17:00etan, betiko tokian.

✓ OLIO BILKETA

Gaur bilduko dira olioa eta gai bereziak. Olio eta gai bereziak gaur bilduko dira. Ereñotzun 16:00etatik 16:20etara; eta Hernanin 16:30etatik 19:30etara, Urbia kalean.

✓ DIPOSITIBA EMALDIA

Hernani-Urnieta-Goizuetako mendi ibilaldiko diapositibak gaur Bodegan. Abuztuaren urtero Hernanik eta Urnieta lagun talde batek mendi ibilaldia egiten du Goizuetako festetara. Azken 10 urte hauetan biziako abenturak erakusten dituen diapositiba emanaldia antolatu dute gaur Bodega Tabernan. Emanaldia gaueko 22:30etan izango da. □

ESKERTZA

Rosa María Tellería Garin

Abuztuaren 18an hil zen

Familia eta inguruokoek eskerrak eman nahi dizkizuegu, modu batera edo bestera egun hauetan gurekin egon zeraten guztioi.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO

Hernanin 2003ko abuztuaren 28an.

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona batentzako, pisu baten alokairu merke baten bila nabil. ☎: 649 07 53 59. Gela bat alokatzen da, bulegoko lanak, klase partikularrak edota masajeak emateko. Zentroan. Interesatuek deitu: ☎: 943 55 29 47 - 943 55 46 97

Emakume bat behar da umea ikastolara eraman eta etxeko lanak egiteko. Lanean hasteko ordua: 07:15 943 333446 (20:00etatik aurrera) - 606 526260

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

+ FARMAZIAK

- Egunez: Etxebeste Elkan 2 ☎: 943 552087
- Gauze: Etxebeste Elkan 2 ☎: 943 552087